

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK


Nafarroako ekonomiak % 2,9ko batez besteko hazkundera izan du 2016an

Foru Erkidegoko BPG % 0,8 hazi da azkeneko hiruhilekoan; Estatukoa, berriz, % 0,7

Astelehena, 2017.eko urtarrilak 30

Nafarroako ekonomiaren hazkunde-tasa erreala ez ditu prezioak kontuan hartzen, eta % 2,9koa izan zen iaz; horrela, berriro lortu da 2015eko aurrerapena, eta hamarren batean gainditu da Foru Gobernuak eszenatoki makroekonomikorako aurreikusitako % 2,8ko hazkundera.

Manu Ayerdi Garapen Ekonomikorako



lehendakariordeak [prentsaurrekoan](#) adierazi du "jarduera ekonomikoak egonkor eutsi diola bere egoerari urte amaieran, abiadura pixka bat moteldu badu ere, eta urte hasieran iragartzen genuenaren gainetik".

Gaineratu du moderazio hori bat datorrela "beste adierazle ekonomiko batzuetan ikusten denarekin, enpleguaren adierazleetan, adibidez".

Espanian, % 3,2koa izan da batez besteko hazkundera, "turismoaren eta eraikuntzaren egoera hobea dela eta", Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak azaldu duen bezala.

Manu Ayerdiaren esanetan, Nafarroa "hazkunde-tasa handiak izaten ari da, % 3 ingurukoak, azkeneko bi urteetan". Aurrerapen horiek "nahiko onak dira, batez ere Europako beste eremu batzuek dituztenekin alderatuta". Zentzu horretan, azpimarratzekoa da Alemanian % 1,9koa izan dela hazkundera, % 1,8koa Europar Batasunean eta % 1,3koa Frantzian.

% 0,8ko hiruhileko hazkundera

Nafarroako Barne Produktu Gordina % 0,8 hazi zen iazko laugarren hiruhilekoan; horrela, Nafarroako Estatistika Erakundeak egiten duen hiruhileko kontabilitatearen aurrerakinaren arabera, urte arteko tasa % 2,7koa izan da.

Estatuak, berriz, urte arteko % 3ko tasa izan du, Estatistikako Institutu Nazionalak egindako zenbatespenaren arabera; % 3,2ko tasa lortu zuen aurreko aldian.

Azkeneko hiruhilekoari dagokionez, % 0,7 hazi da Espainiako ekonomia.

Merkatuko zerbitzuak izan dira hazkunde horren buru, kontsumoak izan duen bultzadari esker, eta zerbitzu horiek izan dira Nafarroako jarduera ekonomikoari "sendoen" eutsi diotenak.

Manu Ayerdik adierazi du, bestalde, merkaturako zerbitzuek merkaturakoak ez diren jardueren laguntasuna izan dutela –hezkuntzarena eta osasunarena, esaterako–, batez ere urte amaieran, "industria-sektorearen portaera ezegonkorragoa izan baita, eta badirudi eraikuntzak 2017. urte honetarako utzi duela bere susperraldia, aurtun nabaritutako baitugu gero eta etxebizitza gehiago eraikitzen hasiko direla".

2017rako aurreikuspenak

Nafarroako ekonomiarako aurreikuspenek diote hezkundea 2016an baino txikiagoa izango dela; Laboral Kutxak iragarri du % 2,3koa izan litekeela, eta % 2,6koa iragarri du BBVAk.

Nafarroako Gobernuak, berriz, aurreikusten du % 2,2ko hazkundea izango duela ekonomiak, % 0,5 eta % 0,6 arteko hiruhileko hazkundeekin. Enpleguari dagokionez, eta BPGrekin bat etorritik, 2016an baino aurrerapen txikiagoa izango dela planteatzen da, 4.000-4.500 enplegu berri ingurukoa.

Foru Gobernuaren aurreikuspena berretsi du berriki AIREF (Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentea) erakundeak, eta Manu Ayerdik azaldu duenez, honako logika honetan oinarritzen da: azkeneko bi urteotan jarduera ekonomikoa bultzatu duten faktoreak, petrolioaren prezioa eta interes-tasak kasu, "gelditu edo moteldu egingo dira datozen hiruhilekoetan".

Horri gehitzen zaio Volkswagenek doitu egingo duela bere ekoizpen-planta modelo berrirako eta Polo modeloaren hurrengo bertsiorako, eta horrek "aldakortasuna ekarriko die Nafarroako aurtengo ekoizpen- eta esportazio-zifrei, nahiz eta eskualdearen epe ertaineko garapenerako oso albiste ona den".

Aurrera begira, "beti bezala", hainbat arrisku ikusten da, gauzatuz gero "arriskuan jarriko dutenak hemen irudikatzen ari garen eszenatoki ekonomikoa".

Horien artean, Manu Ayerdik nabarmendu du Amerikako Estatu Batuetako presidente berriak egingo duen politika dagoela; "haren diskurtsoak gai izango lirateke diru-fluxuak kaltetzeko eta finantzazioa lehortzeko". Identifikatutako beste arrisku batzuk dira europar hauteskundeak Alemanian eta Frantzian, eta petrolioaren prezioaren gorakada iraunkor eta nabarmena; horrek inflazioarengan izango lukeen eraginak "desiotakoa baino gogortze monetario erasokorragoa ekar lezake".

Manu Ayerdiren iritziz, nazioarteko merkataritzak egingo die aurre arrisku horiei; izan ere, nazioartean "kuota handitzen ari gara eta gure esportazioak lehiakorrak dira", eta "gure merkatu nagusia, Estatuak, beste ezein baino gehiago ari da hazten".